

Test Driven Development-en IV. Coding Dojo

2016/04/20

Aurtengoan ere, Test Driven Development-en (TDD) IV. Coding Dojo Mondragon Unibertsitateko Goi Eskola Politeknikoan egin zen eta Alea Soluciones-eko Ruben Egiluzek gidatu zuen. Jarduera edo Kata Informatikako Ingeniaritza Graduko 3. Mailakoei zuzenduta zegoen. Ikasleek giro atseginean eta binaka, aurkeztutako arazoari TDD metodologia jarraituz irtenbideak proposatu eta arazoa konpontzeko estrategiarik onenari buruzko hausnarketa egin behar izan zuten. Saioan erronka bat aurkeztu zen, proben bidez gidatutako garapena praktikatzeko. Katan 3 iterazio egin ziren 40 minutukoa bakoitza.

Interakzio bakoitzean, lehenik eta behin, bikoteko kide batek balioztapen bat egiteko test bat idazten du, eta beste kideak funtzionalitatea inplementatu behar du, testa gainditzeko. Testa gainditu eta gero bikotearen rola aldatzen dira, eta beste baldintza bati egin behar diote aurre. Interakzio bakoitzean bikotea aldatzen da, eta inplementatzen ari den irtenbidea komentatzen da, modu atseginean.

Kata horrekin informatikako graduko ikasleek softwarearen ingeniartzako ezagutzak osatu dituzte, TDD metodologia aplikatuz, izan ere, paradigma hori gero eta interes handiagoa ari da sortzen industria ingurunean.

